



# Udal eta Foru hauteskundeak Oinarrizko egitasmoa.



**egin behar dugu**

# Aurkibidea

## 1. EUSKAL UDALERRIETAKO AGINTARITZA.

- 1.1. Hiru mailatako erakundeen lotura.
- 1.2. EUDEL.
- 1.3. UDALBILTZA.

## 2. BAKEA ETA ELKARBIZITZA.

- 2.1. Gure helburu nagusia, Bakea gure herriarentzat.
- 2.2. Udalerrien zeregina Bakearen eta Normalizazio politikoaren eraikuntzan.

## 3. BIZI KALITATEA, GIZARTE POLITIKAK ETA KULTUR ANIZTASUNA.

### 3.1. Bizi kalitatea.

- 3.1.1. Udalerriak ekonomiaren eragile.
- 3.1.2. Etxebizitzarako sarbidea.
- 3.1.3. Mugikortasuna.
- 3.1.4. Kaleko segurtasuna.

### 3.2. Gizarte politikak eta kultur aniztasuna.

- 3.2.1. Gizarte politikak: ausardia, eraginkortasuna eta koordinaketa.
- 3.2.2. Gazteak.
- 3.2.3. Gizarte eredu berria: Emakumea.

### 3.3. Eforkinak, egiturazko gertakaria.

- 3.3.1. Erregularizazioa txertaketarako bide berezi bezala.
- 3.3.2. Gure erronka: kultura desberdinekoekin elkarbizitza antolatu.
- 3.3.3. Boto eskubidea: politikan parte hartzea, integrazioarako tresna.

## 4. IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNEA.

- 4.1. Euskal udalerriak, iraunkortasun esparruak.
- 4.2. Gure erronkak eta proposamenak.

## 5. NORTASUNA ETA KILTURA.

- 5.1. Kultura: gure nortasuna joera berriekin aberastua.
- 5.2. Euskara: Euskal gizartean elkarbizitzarako eta berdintasunerako balio sendoa.



Oinarrizko hiru irizpideri jarraituz burutzen da agiri hau:

- A. Administrazioak herritarrekin dituen harremanetan lehen leerroan daude udalerrriak. Politika egiteko eta herritarrak gobernatzeko era aldatu da onerako eta behin betirako, EAJ-PNVren ustez: **Politika partehartzailea** herri administrazioetara bertan gelditzeko iritsi den iraultza da. EAJ-PNVn lehenbailehen moldatu nahi genuke horretara. **Gogoetatik eta autokritikatik.**

Egoera politikoaren konponbideari dagozkion ekimenetan partehartzea, baina baita gure herriak aurrera egiteko beharrezkoak dituen erabaki txikietan ere.

- B. Udalerria, eskumen aldetik, ez da gaur egun erakunde gidaria. Baina hori aldatu egingo da, herritarrak ez direla "administratuak" eta zerga-ordaintzaileak bakarrik ohartzen hasi behar baitugu, beren bizilekuen eta lantegien ondoan erantzunak eskatzen dituzten bezeroak baizik.

**Herri erakundeetan gidari** eginkizuna bilatzen dugunez, aberri egitasmoak herritik bertatik, udalerritik, abiatu behar duen burubidean are eta sendoago da EAJ-PNV. Hain zuzen, herri eta hirietan du euskarri sendoa gure alderdiak: **hurbiltasuna, elkarlana, gidaritza.**

- C. Azken batez, udal alderdia da, udalerrriak dituen eskumenak onartuz herritarren zerbitzurako gogoz gidari eta erantzule izan nahi duena. Hori guztia, **gardentasun osoz.**

**Gardentasuna eta etika** EAJ-PNVk gobernatzen duen erakundeetan bakarrik ez, herritarrek oposiziotik garatzeko eskatzen dizkiguten zereginetan nagusiena gardentasuna eta etika izan dira.

Irizpide horietatik abiatuta, 2007ko maiatzean egingo diren udal hauteskundeetako egitarauaren oinarrizko puntuak jasotzen ditu agiri honek.



# 1. EUSKAL UDALERRIETAKO AGINTARITZA.

## 1.1. Hiru mailatako erakundeen lotura.

Eusko Autonomi Erkidegoaren esparruan hiru erakundeen arteko koordinaketaren galerarik gabe, Foru Aldundietako eta udalerrietako gobernuen bultzada beharrezkoa da.

EAJ-PNVren eskutik, **herritarrentzat gertukoaren diren esparruetatik kudeaketaren eraginkortasuna** erakusten arituko dira tokian tokiko erakundeak, gure udalerrien garapenari lagunduz. Hori guztia gero eta txirikordatuagoa eta elkarreraginagoa den lurraldeari eraginkortasun eta iraunkortasun irizpideak atxikiz. Udal gobernuak dira gure herria definitzen duten balioak aurrerapen eta modernotasunaren parametroetan sartzeko eredu, beharrezkoak diren baliabideez horniturik **herritarrek eskatzen dieten gizarte gidaritza bideratzeko**.

Jaurlaritzako, Foru Aldundietako eta Udalerrietako erakundeen eskumenak egokitzeko unea da, Eusko Autonomi Erkidegoko udalerrien eskumenen esparrua behin betiko zehazteko. Eta hori guztia, **erakundeen artean udalerriena egiazko aginpide bezala sendotzeko**.

Euskadiko erakundeen egokitzapen honek berdintasunezko diruen banaketa zuzena eskatzen du udal gobernuak nahikoa baliabiderekkin garatu dezaten

herriko politika, alfer diren babesak baztertuz.

Udal gobernuen zereginaren zer-nolakoaren gogoeta estrategikoak, Tokiko Autonomiaren Europar Kartaren arabera, udal gobernuak oinarritzat hartzea garrantzitsua, **Udalen Legearen garapena** irizpide hauetan oinarrituta bideratzeko:

- Demokrazia eta parte hartzea.
- Eskumenen banaketa, ordezkatzailleak eta elkarrekikoak.
- Udalerrien burujabetza eta finantzabideen burujabetza, gainera beste erakundeen babesa baztertuz eta finantzabide baldintzatuen arazoa konponduz.
- Finantza gaietako erabakiguneetan leku emanaz udal gobernuari.

Udal gobernuen aitorpenetik bakarrik orekatuko da euskal erakundeen arteko sarea. Horrela lortuko da, gainera, baliabideen kudeaketaren koordinaketatik eta eraginkortasunetik, zerbitzurik hobena eta merkeena eskaintzen lagunduko duen eta herriko politiken erabakimenean herritarren partehartzea bermatuko duen sistema erabakitzea.

## 1.2. EUDEL

Sortu zela hogeita bost urte, **euskal erakundeen sistema txirikordatzeko erabakigarria izan da EUDEL**. Beste erakundeen artean udal interesak eta autonomia defenditzeko eta Eusko Autonomi Erkidegoko politikak koordinatzeko eta adosteko solaskide eraginkorra da EUDEL.

Gizarteko egintza, ekonomi sustapena, sexuen berdintasuna, kultura, hezkuntza eta abar bezalako politika garrantzitsuen burubidean eta ekinbidean parte hartzen du Euskal Udalen Elkarteak, gainera.

Halaber, udal politiken ispilu bihurtu behar da EUDEL, herri mailako ekimen gehienak biltzen dituen "sareen Sare" eginaz, **Elkarte hau delarik euskal udalerrien ahots**.

EAJ-PNVk, beraz, **Elkarte hau erakundetzat aitortzea** bultzatuko du. Arlo desberdinetako politikak bideratzeko orduan udal gobernuen ahaleginak batzeko elkargune bezala duen zeregina bermatuko du, gainera. Eta hori guztia herritarren bizimodua hobetzeko eta gure herrien eta hirien

garapena iraunkortasun irizpidez bideratzeko helburuz.

Europako Udal eta Eskualde Batzordea edo Europako Kontseiluko Udal eta Eskualde Gobernuen Batzarra bezalako **europar foroetan EUDELen parte hartzea** bultzatuko du EAJ-PNVk. Gainera, EUDELen beste autonomietako edo estatuko Udal Elkarte edo Federazioekin harremanak eta elkarlana sendotzen saiatuko da.

Arlo guztietan udal kudeaketa hobetu dadin eta herrietan egiazko gidariak sor daitezen EUDEL egiten ari den **herrietako politikoen gaitasunerako hezkuntza lana** eragingo du EAJ-PNVk.

Azkenik, **bizitzaren, demokraziaren, askatasunaren eta euskal gizartearen aniztasunaren alde EUDELek herritarrak ohar arazteko eta elkartzeko eragile bezala** egiten duen lana aitortu nahi du EAJ-PNVk. 2002ko maiatzaren 3an, EUDELek onartu zuen Herritarren Agiriari emandako babesa berresten du EAJ-PNVk. Eraikuntza eta normalizapen politikoan herritarrek parte har dezaten Eusko Jaurlaritzak eta EUDELek, bien artean, 2007ko urtarrilaren 10ean sinatutako hitzarmenaren bidez, abian jarritako prozesua ere sustatuko du.

### 1.3. UDALBILTZA

Euskadiko udal hautetsien elkarte den UDALBILTZA sortzen lagundu zuen EAJ-PNVk. Euskal Herri osoko erakundea da, udalak oinarri dituen, euskal abertzaletasun demokratikoaren tradizioarekin bat egiten duena. Euskal Herriaren nazio eta gizarte eraikuntzaren eragile eta lurraldetasunaren lekuko da Udalbiltza. Harreman eta elkartasun handiagoa, menpetasun gutxiago eta bakean eta askatasunean bere etorkizunaren jabeago den erkidego politikoa osatzeko sakontzen jarraitu nahi dugu. Hori, jakina, elkar ezagutzuz, errespetatuz eta atxikimendu askez burutu nahi dugu.

Hona Udalbiltzaren jarduera gidatzen duten lerro nagusiak:

#### 1.3.1. Euskararen sustapena, defentsa eta babesa lurralde guztietan.

1. Euskara Europar Batasuneko hizkuntza gutxituen artean. Elkarren arteko egitasmoaren barruan.

2. Euskara politikaren eta administrazioaren arloetan hizkuntza gutxitua bezala. EAE. Nafarroa, Iparraldea.
3. UDALBIDE Elkarlan elkartearen jarraipeneko egitaraua.

#### 1.3.2. Euskal nortasunaren defentsa eta sustapena lurralde guztietan.

#### 1.3.3. Herrialdeen artean harremana eta elkarlana sendotu. Euskal Herriko herritarren eta erakundeen arteko harremana.

1. Lurraldeetako talde eta elkarteen arteko harremanak sendotu. Hizkuntza bera mintzatzen duten lurraldeen artean udal-arteke elkarlana.
  - o Arloen arteko elkarlana
  - o Udal-arteke harremana. Senidetzeak.

2. Herritarren arteko harremanak eta elkarlana sendotu.

**1.3.4. Udalbiltza PAYS  
BASQUE, EUSKAL HERRIA, PAIS  
VASCO gisa duen aberri  
mailako lehen erakunde  
bihurtzeko ekinbide guztiak  
sustatu.**

1. Kirol arloa: euskal selekzioak bultzatu.

2. Euskal ordezkariari, erakundeei eta elkarteei begira elkargune eta gogoeta politikoen garapena bultzatu.
3. Kultura: PAYS BASQUE, EUSKAL HERRIA, PAIS VASCO izena sendotzeko ekimenak bultzatu hainbat esparrutan
4. Ekonomia eta gizartea: euskal lurralde desberdinetako erakundeei bere zerbitzuak eskaini.



## 2. BAKEA ETA ELKARBIZITZA.

### 2.1. Gure helburu nagusia, Bakea gure herriarentzat.

EAJ-PNVren lehen helburua **gure Herriarentzat behin betiko Bakea lortzea da**. Euskal herriak gehiegi sufritu du: gerrak, atzerria, erasoak, bortizkeria. Saminezko, bortizkeriazko, sufrimenduzko urte gehiegi. Merezi dugu Bakea. Bakea da gure lehentasuna.

Bakea lortzea ez dago alderdi baten esku bakarrik, ez da "politikoen gauza bakarrik" ere. Euskal gizarte guztiaren ardura da Bakea. Denok egiaz saiatzeko bagara, Bakearen prozesuak ez du atzera itzultzerik.

Aurrean jartzen diren eragozpen eta zailtasun guztiak gainditzeko gauza den Bakearen aldeko "giza uhina" gidatzera engaiatzen da EAJ-PNV. Bakearentzat beste aukera bat eraikitzeke eginahaletan egingo dugu lan. Hori baita gure seme-alabei utzi diezaiekegun ondarerik onena.

#### 2.1.1. Bortizkeriaren bukaera elkarrizketaturako konpromisoa.

Espainiako gobernuaren eta ETaren arteko hizketaldien prozesu guztietan beti egin dugun bezalaxe, **elkarrizketaren bidez indarkeriaren betiko amaieraren bilaketa** irmo sustatuko du EAJ-PNVk. Indarkeriarekin amaitzeko elkarrizketa bidea ezinbestekoa, baliagarria eta eraginkorra da, euskal gatazkaren antzekoetan ikusi den bezala.

Negoiazioaren alde izango da beti EAJ-PNV, **indarkeria behin betiko uzteko jarrera** ETak argi eta garbi erakusten duen aldioro, arazo politikoen konponbidea euskal alderdi politikoei bakarrik dagokiela garbi erakutsiz.

**Bake prozesua alderdien artean borroka politikorako tresnatzat ez duela erabiliko** hitz ematen du EAJ-PNVk. Bakea zerbait preziatuegia da hauteskundeetan bortizkeriaren amaiera elkarri jaurtitzeko

armatzat erabiltzeko. Jokabide hori oso makurtzat dugu, gainera.

**Bakearen aldeko hezkuntza da gure apustua**, errespetu, tolerantzi, elkartasun eta zuzentasun balioetan sendo oinarritutako gizarte eraiki dezagun. Bortizkeriari behin betiko uko egitea, egindako kaltea aitortzea, sufrimendu guztiekiko begirunea, gizatasuna, egia, oroimena, bihotz zabaltasuna..., ezinbesteko urratsak dira guztiak onezkoak egiten aurreratzeko.

#### 2.1.2. Bakea eta Normalizazio Politikoa ez dira nahastu behar.

Bortizkeriaren eta terrorismoaren aurkako borrokak ez dezake eta ez luke izan behar lasterbiderik gizarte demokratikoan. **Terrorismoaren aurkako borroka giza eta herritar eskubideak eta eskubide politikoak murrizteko aitzakiatzat erabiltzea arbuatzen du EAJ-PNVk**. Baita atxilotuen eta beren senitartekoen giza eskubideak zapaltzea ere.

Ezinbestekoa da **Bakea Normalizazio politikotik bereiztea**, hau da. Euskal gatazka politikoa konponbidea. EAJ-PNVk beti argi izan du ez direla elkarrekin nahastu behar eta ez dutela elkar baldintzatu behar ere. Horregatik beragatik, beraz, prest dago elkarbizitzarako esparru berria bilatzearen ekimen politikoa eusteko. Konpondu beharreko gatazka politikoa ETA sortu baino lehenagokoa dela ikusteko gure alderdia da horren ispilua eta seinale.

Gehiengo osoz Eusko Legebiltzarrak onartu eta Espainiako Gorteek baztertutako Estatutu Politiko Berriak ipini du agirian berriro arazo politikoa. Hori da, hain zuzen, konpontzeke dagoen gatazkaren ispilurik garbiena.

### 2.1.3. Bakea Giza Eskubideekiko errespetuagatik.

Bestela pentsatzen duelako bere bizitzari erasotzea, hiltzea, kalte egitea edo torturatzea, inongo gizartetan lekurik behar ez lukeen gizadiaren aurkako krimena da. Edozein bake prozesutan bizitzarekiko eta giza eskubideekiko errespetua da abiapuntua. **Biziaren eskubidea defenditzeak du lehentasuna EAJ-PNVrentzat**, bizirik gabe alferrik baitira gainerako eskubideak.

Erdian dagoela uste duenaren ustelaz haratago, **elkarbizitzaren alde diharduela jakiteko ezaugarri bakarra dago: giza eskubideekiko errespetua, inor baztertu gabe**. Irizpide hori da elkarbizitzaren bizkarrezurra eta gizarte zuzena, elkarkidea eta berdina eraikitzeke bermea.

Zentzu horretan, biktimak funtsezko zatia dira bakea eta elkarrekin onezkoak egiteko bidean. Kaltetuen mina ahaztuz ezin daiteke bakerik egin.

Iragana ondo aztertzea eta sufrimendu guztiak zinez aitortzea eskatzen du Bakeak. **Indarkeriaren biktima guztiei eta bakoitzari agiriko eta gizarteko aitortpena eskaintzeko udal eta lurralde mailan sortzen diren ekimen guztiak bultzatzeko hitza ematen du EAJ-PNVk.**

Biktima guztiek, tresna bihurtu gabe, benetako elkartasun eragilea senti dezatela nahi dugu. **Inork ez du biktimen minaz jabetu behar**, Alderdi baten hauteskundeetako tresna eta propaganda bezala baliatzeko.

Bakoitzak izan dezakeen jarrera politikoaz aparte, proposatzen du EAJ-PNVk biktimekiko elkartasuna, arrazoi bakarra giza duintasunaren defentsarekiko konpromisoa izanik.

## 2.2. Udalerrien zeregina Bakearen eta Normalizazio politikoaren eraikuntzan.

Bakearen eta normalizazio politikoaren eraikuntzarako ezinbestekotzat jo zuen Joan Jose Ibarretxe Lehendakariak herritarren parte hartzea, 2006ko irailaren 22an egindako Politika Orokorrari buruzko eztabaidan. Hiru tresna zituen parte hartze horrek:

- Udalerriak.
- Bakearen aldeko herritarren mugimenduak.
- Ekonomi eta gizarte eragileak.

Udalak jotzen zituen proposamen horrek herritarren esku-hartzea bideratzeko funtsezko tresnatzat, udalerrri bakoitzeko gizabanakoaren edo elkartearen, gizarteko

mugimenduen eta eragile politikoaren bidez.

EUDELek eta Lehendakariak 2007ko urtarrilaren 10ean egin zuten hitzarmena asmo horrekin izenpetu zen. Eusko Jaurlaritzaren eta EUDELen artean elkarlana egiteko oinarriak ezartzeko helburuz egin ere. Honetara behartzen zituzten beren buruak biek:

- **Herritarren esku-hartze prozesua bultza** bakearen eta normalizazio politikoaren eraikuntzari dagozkien arazoei buruzko euskal gizartearen proposamenak eta iritziak jasotzeko.

- **Lan metodologia adostu elkarrekin**, gero udalerrri bakoitzeko egoerara moldatzeko.
- **Parte-hartze anitza eta berdina bermatu**, eragozpen politikorik gabe, lurraldeen mugarik gabe, eta gizarte bazterketarik gabe.
- **Bakerako Foro parte-hartzaileak udaletan abian jarri** eta, aldi berean, herritarren iritziak jasotzeko sistemak ezarri.

Foro hauek bideratzeko udalek beharrezkoak dituzten baliabidez hornitzeko Idazkaritza Teknikoa sortu da. Lehendakaritzaz eta EUDELez gainera, Emakunderen, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, Eusko Jaurlaritzaren

Hiritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren ordezkariak eta gizartearen parte-hartze prozesuetan adituak direnez osatu da Idazkaritza Teknikoa. Hau da bere egitekoa:

- **Jarraitu beharreko metodologia marraztu.**
- **Gizarteko eragileak hezi eta koordinatu**, alkate-alkatesen laguntzaile izan daitezen ekimenak bideratzerakoan.
- **Lortutako emaitzak prozesatu.**



## 3. Bizi kalitatea eta elkartasuna.

### 3.1. Bizi kalitatea.

#### 3.1.1. Udalerriak motore ekonomiko Eusko Jaurlaritzarekin eta Aldundiekin lankidetzan. Garapen guneak.

Enpresen kokapena laguntzeko eta, enplegua sortzen eta ekonomi hazkundera eta gizarteko loturak eragiten, ekimen handiko pertsonen bidea lautzeko orduan udalerrien zeregina funtsezkoa da EAJ-PNVren ustez. Enpresez gainera, gizarteko aldaketan eragile gisa eginkizun handia dute udalerriek, beren inguruaren erantzule baitira eta, hein batean, bertan lan egiten duten pertsonen erantzule.

Datozen lau urteotan, Euskadira eta Euskadiko udalerrietara enpresak erakartzeko ezinbestekoak diren tresnak eta gizarte eta ekonomiaren aldetik beharrezkoak diren barrutiak bultzatzen saiatuko da EAJ-PNV, hori guztia enplegu gaian Europak duen legeriaren barruan.

Erasanenak diren guneen eta eraberritze aldiaren dihardutenen garapena bultzatzeko hitza ematen du EAJ-PNVk. Lantokiak eta lana sortzeko ekinbide guztietan ere tarteko izango da, gainera, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.

Helburu horiek lortzeko, EAJ-PNV arlo hauetaz arduratuko da, batez ere:

1. **Industrialdeak sortzeko politika eraginkorrak**
2. **Enpleguaren azterketa lurraldeka**
3. **Aberastasun banaketa. Zergen kontrola.**

#### 3.1.2. Turismoaren garapena.

Euskadi turismo gune bezala ezagutzeko ezinbestekoak diren hedapen tresnak eta komunikabideak bultzatuko ditu

EAJ-PNVk, aurrerantzean. Zeregin honetan udalerriek beren turismo eskaintza egokitzeak garrantzi handia du. Turismo eskearen berezitasunari erantzun behar diote udalerriek.

Kalitateko turismoa bultzatzeko ez ditu aberastasuna eta enplegua bakarrik sortzen, baita kultur trukeak ere. Euskal Herriko turismo eskaintza anitza eta kulturari oso lotua da. Horregatik da ezinbestekoa ahalegin guztiak koordinatzea eta turismo marka jakinaren nortasuna eragitea.

#### 3.1.2. Etxebizitzarako aukera

**Lehenengo etxebizitzaren aukera ezinezkoa izatea** da euskaldunen arazorik nagusienetakoa. Gainera, pobrezia aurkako borrokarekin eta gizarte laguntzen sistemarekin zerikusia duten beste arazo askoren bide da.

#### 3.1.21. SALNEURRI FINKATUKO ETXEBIZITZEN aldeko apustu garbia.

Etxebizitza eskuratzea loteria kontua izan ez dadin, neurri eraginkorrak hartu behar dira. **Salneurri finkatuko etxebizitzaren eraikuntza bultzatzea** da EAJ-PNVren apustu garbia. Herrian bertan bizi diren eta etxebizitzarik ez dutenentzat izango dira. Ia aho batez salatzen den etxebizitzaren garestitzearen arrazoia saihestu nahi da horrela: etxebizitzaren jabe direnek inbertsio gisa erostea. Bigarren etxebizitzaren edo etxebizitza hutsen ugaltzea galgatuko luke neurri horrek, Gainera, inbertsio eta espekulazio bidea itxiko luke.

Salneurri finkatuko etxebizitza ugari egiteak, onura hauek ekarriko lituzke, aldi berean:

- **Etxebizitza berria bertan bizitzeko izan dadila** eta bere etxerik ez duenak eta herrian bizi denak bakarrik izan dezala erosteko aukera.

- **Eraikitzen kostatzen denari hirigintzako gastuak eta etxegilearen arazoizko irabaziaz erantsita balio duen salneurria finkatu,** ekonomiaren hainbat arlotan egiten den bezala. Etxebizitzaren salneurria eta urte hauetako soldaten artean dagoen koska gutxitzen da horrela eta 50 urtetarako hipotekek gazteei bizitza guztirako sortzen dieten itomena kentzen.

### 3.1.2.2. Etxebizitza sozialaren eskaintza: etxebizitza alokairuan.

Etxebizitza sozialaren salmenta alokairura zuzendu beharra dago. Alokairua da babes ofizialeko etxeaz baliatzeko erarik zuzenena. Hona arrazoiak:

- Une bakoitzeko premiei erantzuten die.
- Lan merkatuko premien arabera mugitzeko aukera ematen dio jendeari.
- Esleipenerako jarri ziren baldintzak erabiltzaileen aldetik betetzea hobeto bermatzen da.

Azken puntu hau gogoan, diru-sarrerak handiagoak dituztelako, alokairurako eskubiderik ez dutenentzat eta besteren bati utzi behar diotenentzat, lehen aipatzen genituen puntuei begira, ezinbestekoa da salneurri finkatuko etxebizitzaren aldeko apustua.

Eraikuntza berriko gehienak lehenengo etxebizitzarik ez dutenentzat gordetzea litzateke arazoaren egiazko konponbidea.

Hori dela eta, **eraikitzen diren etxe berrien %80 etxerik ez dutenentzat izatea proposatzen du EAJ=PNVk,** erosleek ohiko bizileku bihurtzeko dadin. %80 horren barruan...

- Gutxienez **%20 alokairu sozial publikorako** gordeko litzateke beti eta nahitaez.

- Gaurko **Babes Ofizialekoen** (78.000 euro, barrena) eta salneurri finkoaren (210.000 euro, gorenak) artean banatuko litzake **%60**.
- Babes Ofizialekoen **%20**, nahitaez, **alokairu sozial publikorako**.

Zoru mota guztientzat balio du, hirikoentzat eta hiriko izango direnentzat.

### 3.1.2.3. Kontuan hartu beharrekoak.

Eraikuntza berriko daude eremuen zatirik handienak gizon-emakumeen beharrei erantzun ahal izatea bermatuko litzateke horrela, bizitzako egitasmoa garatzeko etxebizitza beharrezkoa denez, Etxebizitzaren portzentaje handi honen barruan, alokairu sozialerako %20 beti gordeta edukitzea proposatzen da. Horrela alokairuko etxebizitza multzo berdintsua izango genuke toki guztietan ekonomia eskasekoentzat, ibili behar handikoentzat edo etorkizuneko egitasmo iraunkorrik gabekoentzat.

Horrela, etxebizitza nahitaez erosleek ohiko bizileku bihurtzeko eraikuntza berriak eginkizun soziala beteko luke, ekonomi ondasun izatetik gizarte ondasun izatera helduz.

Honoko neurri hauekin...

- **Eraikuntza berri guztia dago beharurik lurra uztera,** BOE portzentajearekin ihes egiteko hiriko eta hiri bihurtzeko gai diren orubeekin egiten diren iruzurrak saihesteko, hor baita gaurko formulen zuloetako bat.
- Alokairu sozialeko aukera bermaturik, **gazteak bere buruen jabe** izan daitezke, lanaren arabera **etxe aldaketa** erraztuko luke edo beharrean denarentzat egokiera ekarriko. Gainera, alokairuko etxe multzoa sendotzeko **Europar batasunak egindako gomendioak beteko lirateke.** Babes Ofizialeko

Etxebizitza lortzeko **beharrezkoa den diru-sarreraren baldintza saihestuko litzateke.**

- **Etxebizitza babestuaren eta etxebizitza librearen artean dagoen hutsunea beteko litzateke,** diru-sarrera murriztagoa dutenentzat edo erdi mailako errentakoentzat lehen etxebizitza bermatuz.
- **50 urteko hipoteka hartu beharri egingo lioke uko.**
- Etxebizitzaren balioa finkatzeak berez dakar **orubearen egiazko prezioa kontrolatzea eta espekulazioari ateak ixtea.**
- Etxebizitza babestuaren lehiak bere senera ekarriko du etxebizitza librea eta **merkatu egingo ditu bigarren eskuko etxebizitza eta etxebizitza librea.** Era berean, errentagarritasun eta irabazi handien itzarobideak gutxitutakoan, etxebizitza hutsen merkaturia bistaratuko da.
- **Herriak ekipamendurako beharrezkoak dituen lekuak ez da Babes Ofizialeko Etxeak egiteko eman beharrik izango,** etxe babestua etxegintzarako jarritako sailetan eraikiko baita. Ekipamendurako gorde ziren lekuak atsedenerako, jolaserako eta abarretarako egokituko dira. Besterik gabe, hobetu egingo da herritarren bizimodua.
- Etxebizitza librea hainbeste mugarrizteak **inbertsioa helburu duten etxebizitza berriak eraikitzea murriztuko du.**
- **Sistemaren iraunkortasuna bermatzen da,** bigarren bizitzekin orube berriak estali gabe. Etxebizitzen multzoa ere gutxitu egingo du eta Euskadin eskas dugun lurra ondorengo belaunaldiei utziko zaie.

### 3.1.3 Mugikortasuna.

#### 3.1.3.1. Garraioa eta azpiegiturak.

Azken urteotan gauza asko aldatu dira gure gizartean, baina pertsonen mugikortasunean eta garraioaren hazkuntzean nabarmendu da gehien aldaketa hori. Ekonomi eta lanbide edo aisia arrazoiengatik gertatzen den aldaketa honi erantzun egokiak ematera, azpiegitura berriak egitera, jendearen beharrak betetzera eta, Atlantiko bidean duen kokapenak ematen dion aukeragatik, gure sarean ingurumariarekiko loturak egitera behartzen ditu agintariak.

Mendebaleko gizartearen garapenak mugikortasunaren erretratuan **norbere autoaren erabilera** ikusten da. Horrek kutsadura eta errepedeetako **itomena** eta segurtasunik eza dakar. Eta, jakina, **garraio publikoa** indartzea eta azpiegituren eta zerbitzuen egitura intermodal egokia jartzea eskatzen du, mugitu beharrei **mugikortasun iraunkorrez erantzuteko.**

Gizartearen, ekonomiaren eta ingurunearen iraunkortasunarekin dugun konpromisoak **gaur egungo mugikortasunak ingurunean eragiten duen hondamena gutxitzeko egitasmoak garatzera** behartzen gaitu. Mugikortasuna aintzakotzat hartu beharra dugu zer nolako Euskal Herria nahi dugun hitz egiten ari garenean, lurraldearen antolaketak eta hirigintzak asko lagundu behar baitute horretan. Garraioan ere oreka berri bat bilatu behar dugu, trenbidekoa, itsasokoa eta publikoa bultzatuz.

Iraunkortasunari begiratzeak ez du eskurik sartu behar ez dugunik esan nahi, baizik eta **gure inguruarekiko harremana hobetzea, eraikuntzako prozesuak behar bezala kudeatzea, azpiegiturak ingurumarian ondo uzartzea eta azpiegitura berriak lehengo osagarri izatea.** Garraio zerbitzuak berritzea ere eskatzen du, azpiegiturak bakarrik ez baitu mugikortasun arazoa konpontzen. Kudeaketa on batek, garraio politika

egoki bati lotuak, inguratuko gaitu arazo honen konponbidera. Funtsean, garraioa zerbitzuen antolaketa erakundeen arteko koordinaketa, mota askotako garraioen bilguneen garapena, jendearentzako eta kargarentzako garraioen garapena eta alor horren berrikuntza funtsezkoak dira.

Beraz, EAJ=PNVtik beharturik gara:

- **Hiri inguruen kudeaketa osoa** egin behar da. Etxebizitzen, lantokien eta aisialdien eremuen plangintza osotasunean egin behar da, garraiorik egokienaren soluziobideak aurreikusiz. Hau da, zerikusia duten erakunde guztiekin koordinatuz egin behar da plangintza. Arazo jakin bakoitzari garraio bide onena aurkituko zaio, baina plangintza ez da inolaz ere ikuspuntu bakarretik begiratuta egin behar. Hau da, egitasmo bat burutzen ez da, aldi berean, garraioaren konponbidea aztertu gabe hasi behar. Egitasmo orokorrari txertatu behar zaio, gainera, izan dezakeen konponbidea.
- **Garraio sistema erakunde kudeatzaile bakarlean txertatu behar da**, zerikusia duten administrazio guztien artean garraio guztiak koordinatzea, herritarrei kalitateko erantzun eraginkorra eta segurua eskaintzeko lurraldearen barruan. Garraio publikoaren eskaintza hobetzen, hiri barruko itomena arintzen, ibiliko denbora aurreratzen eta ingurunearen aldetik hiri atsegina eta iraunkorra egiten utziko digu horrek.
- Gure ekonomiaren lehiakortasuna eta ekoizpena merkantzien garraioen eta hainbat eremutik eskaintzen diren zerbitzuen baitan dago. **Itsasportuak eta aireportuak lotuko dituen garraio sarearen garapenak, zerbitzuguneekin eta trenbideen garapen onarekin**, errepideen sarea osatuko luke eta

zerbitzu integrala eskainiko. Hau da, beharrezkoak diren azpiegiturak burutu behar dira sarea osatzeko, baina soluzio teknologikoak ere sartu behar dira berorien erabilera eraginkortasuna eta kudeaketa hobetzeko eta errazteko.

### 3.1.4. Kaleko segurtasuna.

Segurtasunik eza da herritarren kezkarik nagusienetakoa. Gure ustez, ez da polizia kontua bakarrik, osotasunean hartu beharreko arazoa da baizik, hainbat eta hainbat eragileren parte hartzearekin, gizarte, ekonomia, kultura, etorkinak, delitu berriak eta abar. Zerbitzu publikoei dagozkienak elkarrekin koordinatuz eta herritarren parte-hartzearekin bermatu behar da segurtasuna.

Horregatik, pertsonetikiko, ondasunekiko eta lurraldearekiko segurtasun politiken garapenaren aldeko apustu sendoa egiten du EAJ-PNVk. Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta Udalek eskaintzen dituzten segurtasun zerbitzuak hobetzeko helburuz.

Euskal segurtasun politikak hainbat jardura koordinatzen ditu, gure ustez, herritarren segurtasuna, ibilbideak, babes zibila, osasuna, su-hiltzaileak, gizarte zerbitzuak edo ingurunea. Hori guztia euskal gizartearen premiei egokitzeko, baliabide publikoen erabilera eraginkorrago eta berariazko zerbitzuen eta herritarren parte-hartzeaz, gardentasunaren eta informazioaren bidez.

#### 3.1.4.1. Gizarte joera berriak, premia berriak, eredu berriak.

Tximista baino azkarrago ari dira aldatzen hiri eta eskualdeetako larrialdi zerbitzuak, azken urteotan. Aldaketa honen ezaugarri batzuk:

- Gero eta **herritarrei orientabide eta hurbiltasun kultura** handiagoa.

- **Teknologiaren eta informazio zerbitzuen** aldeko apustu irmoa, dauden muga eta hesi guztiak ezabatzen baitituzte.
- **Gizarte inguru aldakorra**, mehatxu, aukera eta erronka berriekin.
- Larrialdirako zeregin berriak eta zerbitzu gehigarriak, **segurtasun kontuetan herritarrek hezitzeko eta kontzientziazteko** informazioaren aldeko apustua.
- **Etengabeko berrikuntza kudeaketa ereduetan** eta larrialdiko zerbitzuak antolatzeke eta osatzeko.
- Zerbitzuen garapenean eta berrikuntzan egiten ari den inbertsio garrantzitsua.

Aldagai hauek denek eremu guztietako aldaketa erabakigarriak egitera behartzen dituzte gizartean, hirigintzan eta ekonomian, hasi herri txikienetatik eta handietaraino. Gizarteko ohituren aldaketek, komunikabide azkarrek, hiriguneen eta nekazari-guneen garapenek, oso azkar ari dute aldatzen gure herri hau, gogoan izan behar ditugun ondorio pila bat eraginez. Horrela:

- Gero eta gizarte anitzagoa, desberdinagoa eta aldakorragoa ugaltzen ari diren etorkinekin eta mugikortasunarekin.
- Larrialdi mota batzuekiko (suteak, istripuak, eta abar) eta delitu batzuekiko (etxeko indarkeria, sexu indarkeria, zaratak, garraioa, gizatasun eza...) herritarren sentiberatasuna.
- Talde jakin batzuekiko lehentasunezko arreta, (gutxietsiak, elbarriak, zaharrak, umeak, emakumeak...).
- Hiri eta herrietako auzune eta azpiegitura berriak, zirkulazioan, larrialdietako sarbideetan, zerbitzu publikoetan eta abarretan premia berriak eragiten baitituzte.
- Euskadiko turismo gero eta handiagoak dakartzan premiak: bisitariei arreta, hizkuntzak, delituak, eta abar.

### 3.1.4.3. Oraingo eta geroko erronkak.

#### 3.1.4.3.1. Larrialdiak:

- Euskal Herri osoko polizia, su-hiltzaile eta osasun larrialdietarako telefonoko 112 zenbaki bakarra koordinatu.

#### 3.1.4.3.2 Herritarren segurtasuna:

Euskal Herria azken urteotan deliturik gutxien duen gunea dela adierazten dute Herritarren Segurtasun datuek. 2005eko urtean mila biztanleko 55 delitu egin ziren, Estatuan, berriz, 80 mila biztanleko. Hala ere, ez dugu lasaitu behar egoera mantentzeko eta hobetzeko orduan.

- **Ertzaintzaren hedapenarekin** jarraitu.
- **Telekomunikazioetan garapen teknologikoa** eskaini (irratia eta GPS) eta informazio eta kudeaketa sistemak Barne Sailetik Udalei eta Aldundiei, bai udaltzainei eta bai su-hiltzaileei.
- **Ertzaintzaren eta udaltzainen arteko koordinaketa**, Barne Sailak eta Udalek egindako hitzarmenen bidez, bakoitzaren eskumenak zehaztuta. Informazio eta informatika sistema bateratuak.
- **Udaltzaingoaren Zerbitzuen Mankomunitateak sortzeko** aukera, hainbat herriren artean, gauetarako, asteburuetarako, uda garairako, turismo guneetarako eta abarretarako, Barne Sailaren onarpenarekin.
- **Udaltzainen etengabeko hezkuntza** sustatu.

- **Delituak kaltetuei laguntza**, sexu indarkeriak edo beste edozein motatakoak eragina izan.
- Udaltzainen **soldaten berdintasunean**, ekipamenduen, baliabide teknikoen eta jardueren jokabideen berdintasunean aurreratu.
- **Gizalegerik ezaren aurkako neurriak**, pertsonetikiko edo ondasun publiko eta pribatuekiko errespetuaren aurkakoak, atsedenerako eskubidearen aurkakoak, paseatzeko, lasai ibiltzeko eta herri eta hiriez gozatzeko eskubidearen aurkakoak.
- **Kalean polizia gehiago.**
- **Gizarte, ikastetxe eta eskoletako, dendarri, tabernari , industri eta abarretako taldeekin koordinaketa** bultzatu, segurtasun neurrien berri jakiteko eta parte-hartzeko.
- Neurri bereziak teknologien, industrien eta abarren **piratak harrapatzeko.**
- **Arlo bereziatarako neurri zehatzak**, gazte gaizkileak ez sortzeko, ikastetxeetako drogak kontrolatzeko, eskolako bortizkeria baztertzeko, ingurunea babesteko.
- **Gizarte bazterketaren aurkako neurriak**, kaleko prostituzioa, kaleko salmenta.
- **Bideko Segurtasun Plana 2007-2011** bideratu.

## 3.2. Elkartasuna.

### 3.2.1. Gizarteko politikak: ausardia, eraginkortasuna eta koordinaketa.

Pertsonen bizimodua hobetzen eta bere bizitza lasaia eta asebetea izan dadin laguntzen duten eragile multzoa da ongizatea. Erakundeek bermatu behar duten herritarraren eskubideaz ari gara, beraz.

Gogoraraztea komeni da, pertsona guztiei eskaintzen zaizkie gizarte zerbitzuak. Izan ere, bizitzako aldiren batean, guztiok behartu gintezke baliabide horietaz. Horiekiko uzkurkeria guztia uxatu beharko genuke, beraz, eta ongizate ikuspegitik biztanleria guztiari eskaintzen zaizkion baliabideak direla gizarte zerbitzuak komentzitu.

Osotasunean, azkar eta era koordinatuan konpondu beharreko erronka garrantzitsuak sortzen zaizkigu gizartean. Erronka berri horiei erakundeetatik ematen zaien erantzuna gehiegitan gaintitzen du egoerak. Gure gizartean gertatzen ari diren aldaketak sumatzeko modu azkarrak ezartzea beharrezkoa da, beraz, erantzun ausartak, eraginkorrak eta berehalakoak emateko egoeraren egiazko azterketa eginaz.

Aurre egin beharreko erronka asko dituen etorkizuna dugu aurrean. Gizarte eredu. Bertako kideak, biztanleriaren piramidearen aldaketa, gizarteko desberdintasunak, homosexualtasuna eta bere bereizketa eta abar direla eta, aldaketa hauei erantzuteko orduan arretatsuak izan behar dugu. Bestela, konponbide zaileko arazo larri bihurtuko dira.

Osasuna, haurtzarora, familia eredu berriak... Heldu behar zaien gaiak dira, baina gure lehentasunezko arreta eskatzen duten funtsezko hiru arlo daude: biztanleria gero eta zaharragoa da eta etorkinak eta etxerik gabeak ere gero eta gehiago dira.

1. **Biztanleriaren zahartzea** da lehenengo heldu behar zaion arazoa, geldiezia eta atzera ezina baita, eta giza bizitzaren alderdi guztietan baititu ondorio garrantzitsuak. Garatzen ari diren herrialdeetan zahartzearen erritmoa handiagoa da, gure gizarteak denbora gutxiago du, beraz, egoera berrira egokitzeko. Bestetik, bizitza luzatu delako ezinduen kopurua ere handitu egingo da. Horregatik, erantzukizun politikoa dugunok erakundeen arteko elkarlanean konpondu beharreko benetako erronka dugu, bakoitzak bere eskumenen arabera, pertsona horien eta bere familien bizitza arintzeko.

Norbere ingurumarian zahartu, egiaz ezinbestekoa den arte egoitzetara eraman beharrik gabe. Hori da gaurko gizarte politiken barruan lehentasuneko helburuetako bat. Baina hori egia izan dadin, ezinbestekoa zaio familia zaintzaileari egiazko sustapen sistema, beharrezkoak diren laguntza eta egitarauekin.

2. **Etxerik gabeko pertsonak** dira gure gizartean gertatzen ari den beste gertakaria. Ekonomi zailtasunak, bakarrik bizi den jendea, gaixoak eta abar ari zaizkigu gizarte politiken eskean, erakundeek, seguruenerik, ahalegin handiagoa eskatuko dien hainbat arlotako lana elkarrekin gurutzatuz. Udal aterpeak edo harrera etxeak bezalako egoitzak prest izan beharko ditugu. Gizartearen sentiberatasuna gehitzeko politikak ere eragin beharko dira, batez ere hiriguneetan.

Gure erakundeek orain dela urte asko hasi zuten lanari jarraitu behar zaio, zailtasunak dituzten pertsonen gizarteratzen lagunduz: **zaharrak, ezinduak, elbarriak, iheslariak, etorkinak..., bazterketaren aurkako**

**borroka, bazterketari aurea hartzea eta bizimodua hobetzea** dira gure gizarte politikaren goiburuak. Herritarren, batez ere, talderik behartsuenen aurrerabiderako eta garapenerako lortzen ari diren eskubideak eta bermeak betetzen ahaleginduz. Hori ez da gizarte zerbitzuen erantzukizuna bakarrik, gehienetan, elkarkidetzan eskatzen du.

Gurea bezalako gizarte aurreratu eta garatua, handitzen ari dira bata bestearen arteko aldeak eta hori guretzat onartezina eta ezabatu beharrekoa da.

### 3.2.2. Gazteak

Lana aurkitzeko eta etxea eskuratzeko zailtasunak dira gure gazteriari bere kabuz bizitzea eragozten edo zailtzen diotenak. Gainera, bizimodu eta portaera osasungarriak eragin behar dira gazteriarengan. Adibidez, aisia parte-hartzailea bultzatu, kultur ekimena eta gazteriaren mugikortasuna sustatu, eta bazterrean geratzea saihestu.

Erakundeen arteko lan koordinatua eskatzen du gazteriak, beraz. Horregatik, **gazteriari buruz elkarlana bultzatuko du EAJ-PNVk, gazte horien parte-hartzearekin**, elkarteren bateko kide izan ala ez, eta gazteriarekin harremanak dituzten gizarte eragileekin.

Bereziki gazteriari eskainitako egitarau eta zerbitzuak burutzeaz gainera, EAJ-PNVk egitura, egitarau eta prozedura administratiboak egokituko ditu Administrazioan gazte ikuspuntua txertatzeko. Eta horrela gazteriaren burujabetza lagunduko duten ekintza baikorren neurriak egoki moldatzeko, burutzeko eta balioesteko.

### 3.2.3 Gizarte eredu berria: Emakumea.

Gure gizartearen berdintasun bidean aurrerapen handia izan behar luke emakumea lan merkatuan gero eta gehiago sartzea. Besteren menpeko -besteren soldataren menpeko- izateri uzteko erabakia emakume gehienena da. Hala ere, erabaki horrek ez du beti nahi den emaitzarik ematen. Orduan, emakumeak bi halako lan egiten du, ia beti, lantokian eta gero, etxean.

Gizarteko egitura ez da ia aldatu: eskoletako jangelak ugaltu dira, haurtzaindegi batzuk eta ezer gutxi gehiago. Eta dena ez bada itota geratzen emakumeak, bere galera handiz, langile eta ama bezala, bigarren lanaldia bere gain hartzen duelako ez da gelditzen. Gehienez ere, senitartekoen laguntza aurkitzeko zoria izan dezake.

Beharbada, lantokiko eta etxeko lana uztartzea ez da hain garrantzitsua, beti emakumearen gain uzten bada ere. Garrantzitsuagoa litzateke gizarte antolaketa eta etxeko eta seme-alaben ardura oraindik amari bakarrik egozten zaizkion portaerak eta ohiturak aldatzen hastea. Funtsezkoa da gizarteak aurrera egitea ikuspuntu horren aldaketa bereganatzen.

Lana -bere ordutegi finko eta aldaezinekin eta abarrekin- egin beharreko den burubide zahar eta erroto hori uztea eskatzen du antolaketaren aldaketak. Hori da garrantzizkoa eta gainerako guztia horri egokitu behar zaio, baita elkarbizitzako arauak berak ere. Ezinbestekoa da pentsaera itzultzea eta kanpoko eta

etxeko lana uztartzeko beharrezkoak diren baldintzak ezarri behar ditugula barneratzea.

Horretarako, enpresak, erakunde publikoek, alderdiek, sindikatuek... baldintza horiek sartu behar dituzte beren antolaketan. Familia inguratzen duen guztiak -ezinduak, seme-alabak...- behar dituen laguntzak eta baliabideak jaso behar ditu. Horrela bakarrik sortuko dira bi munduak uztartzeko baldintza egokiak. Ordutegi malguak, familiaren beharretarako baimen bereziak,

lanaldien murrizketak, haurdunaldiko lan-uzteak eta abar moldatuz antolatu behar da lana. Edo lanaldia arratsalde erdirako amaitzeko modua eginaz, Europako iparraldean egiten den bezala, gehiago ekoizten baitute, gainera.

Adostasunaren bidez bide horretatik ez aurrera egiteak jaiotzak murriztuko ditu eta biztanleriaren zahartzea gehituko du, lehenaz gainera.

### 3.3. Etorkinak, egiturazko gertakaria.

Jaiotza murrizari aurre egiteko etorkinak bikoiztu egin beharko dituela Europak baiesten du ONU edo nazio Batuen Erakundeak. Herralde aberatsetan zahartzaroa luzatzeak eta ugaltzeak eta familiako kopurua urritzeak etorkinak bikoiztera behartuko dute Europa 2050 bitartean. Atzerritarren azken urteotako etorrerak eta geroari begira egindako kalkuluek egiturazko gertakaria bihurtu dute egoera hau. Gaur egungo etorkinen emana etorkinen beraien eta gure gizarte hartzailleen premiek behartua da. Hori horrela izanik, ekonomi arlo batzuetan atzerritarren eskulana beharrezkoa gertatu da azken urteotan. "Bertako" langilerik ezean, nekazaritza, etxeko lanak -zaharrak eta umeak-, ostalaritza edo eraikuntza bezalako ekonomietan aspaldikoa da kontu hau.

Egoera honetan, atzerriko gero eta pertsona gehiagok dute gure artean bizi- egitasmoa eta herritartasuna eraikitze aukera. Hortik abiaturik, **herritar-herritar izateko ezinbesteko baldintza bilakatzen da lan eskubidea, eta eskubide politiko bezala bere esanahi guztia hartzen du, gainera.**

Bazterketa sozialaren aurkako euskal legeak dioen bezala, "lan merkatuan parte ez hartzeak edo hala moduz parte hartzeak erabakitzen du, ia nahitaez, baztertze bidean abiatzea eta, ondorioz, gizarte eskubiderik gabe gelditzea. Jokabide horrekin, gabeziak eta menpetasunak pilatu edo gehitu bakarrik ez dira egiten, elkar indartzen dute baizik". Baldintza horietan, legezkoa ez den etorkina galbidean amiltzen hasten da, bizimodua hobetzeko bere ametsa eta egitasmoa ustel gertatzeak heriotza zibila baitakarkio, giza eta herritar eskubiderik gabe uzten baitu etorkin hori.

Horregatik, legearen arabera, "erabat ezinbestekoa da egoera hori bere onera ekartzea eta lan merkaturako sarrera erraztea. Atzerritarren legeak

horretara behartzen dituen laguntza eta sorospenen menpetasuna gutxituko lioke horrek eta herritar osoaren baldintzak eta eskubideak eskuratzen hasiko litzateke.

#### 3.3.1. Erregularizazioa txertaketarako bide berezi bezala.

##### 3.3.2.1. Eskola

Nola gure seme-alabak hezi elkar errespetuz onar dezaten? Etorkizunean gure mundua nolakoa izango den gure eskolek erabakiko dute.

- **Eskola ele anitza eta integratzailea** ohitura desberdinak beregatzuz.
- **Kultur askotako eskola.** Horretarako nahikoa baliabide egokiz eta desberdintasuna lantzeko gai den irakaslez hornitu beharko da. Aniztasuneko hezkuntzak baliabide gehiago behar ditu.

##### 3.3.2.2. Kultur aniztasuna.

Ohitura eta jarduera batzuk errespetatzea eta eskubideen eta oinarriko askatasunaren eta demokraziaren aurka daudenak eragozte da erronka.

#### 3.3.3. Boto eskubidea: politikan parte hartzea integraziorako tresna.

Agintarien eta gizarte hartzailereen betebeharra hau da: **bertakoak edo etorkinak izan, herritar guztiak hartzen dituen erkidego politikoa osatzen ahalegintzea.** Bere herritar guztiak onartzen dituen, denak bere kide sentitzen diren eta guztiak parte har dezaketenen herria sortu. Orain arte lan

merkatuan, zerga sisteman eta hezkuntzan txertatu dira atzerritarrak, horietan dituzten eskubide eta betebeharrekin, baina ez dira politikan, eztabaida publikoan, sartzen eta ez dute erabakietan ere parterik. Hain zuzen, boto eskubiderik ez dutelako.

“Herri bat” egiteko, garen eta gure gizartean izango diren guztion artean etorkizuneko herriaren ikuspegia lortzeko

erarik onena gure artean sortzen diren arazoetan eta erabakietan parte harraraztea da. Botoa emateko eta botoa hartzeko eskubidea da integrazioarako tresnarik nagusienetakoa, gure Herriaren orainaz eta geroaz interesatzera eta parte hartzera lerratzen baititu pertsona guztiak.

### **3.4. Aisia eta solasa.**

Gero eta bizimodu hobea eskatzen duen gizarte aurreratua da gurea. Horregatik, gure herri eta hiriak erosoagoak eta atseginoagoak egitea izan behar du gure helburu nagusienetakoa.

Udalerrietan bizitzen gara eta lan eta jolas egiten dugu. Beroriek eskaini behar dituzte, beraz, erantzunak, herritarren premiak asebate daitezten.

Era horretan, ondorengo helburuei erantzuteko hitza ematen du EAJ-PNVk:

- Udalerrietan dauden berdegunea gorde eta gehitu.

- Kirol jarduera sustatu eta kiroldegiak berritu.
- Egin daitezkeen tokietan bidegorriak eta beste moduzko garraioarentzat ibilbideak egin.
- Aisialdirako eta kulturarentzat leku berriak sortu, batez ere gazteenei eta zaharrei begira.
- Gure ingurunea zaintzeko ekimena bultzatu, kalterik egin gabe goza dezagun.
- Erkidego desberdinen arteko trukea eta elkarbizitza lagunduko duten aisia eta kulturako egitasmoak moldatu.



## 4. Iraunkortasuna eta ingurunea.

### 4.1. Udalerriak, iraunkortasun esparruak.

Giza bizitza baldintzatzen duten alderdi guztiak hartzen ditu ingurunea adierak gaur egun, ez izadiarenak bakarrik, baita gizartearenak, ekonomiarenak eta kulturarenak ere. Inguruneaz gaur egun hitz egitea gure biziguneaz hitz egitea da, egunero gure ekinbideak garatzen ditugun inguruaz, horrek baldintzatzen baikaitu eta, aldi berean, guk baldintzatzen dugu bera.

Ikuspuntu horretatik, Nazio Batuen Batzarrak 1992an Rioko Agirian Inguruneaz eta Garapenez hartutako lehen irizpideak hauxe erabakitzen zuen: *“gizakiak dira garapen iraunkorrarekin zerikusia duten kezken muina. Izadiarekin lagun den bizitza osasuntsurako eta emankorrerako eskubidea dute”*. Hain zuzen, horixe da EAJ-PNVren ingurune politikaren helburu nagusia; gizaki guztientzat, gaurkoentzat eta biharkoentzat, bizitza duinaren eskubidea, kalitatezko ingurumarian. Iraunkortasun adieraren mamia adierazten duen helburua.

EAJ-PNVrentzat, **ekosistemen muge barruan, noski, guztientzat bizimodu hobea lortzen lagunduko duen aurrerapena bermatzea eskatzen du garapen iraunkorrak**. Gizarteko arazoei era arduratsuan, zuzenean, orekatsuan eta jarraipen bermeaz aurre egin nahi dien edozein kudeaketa publikok iraunkortasun adiera du giltzarri, beraz.

Burubide honekin ados, EAJ-PNV erakundeetako buruzagitzak garapen iraunkorraren adiera barneratzera eraman du udaletako politikagintzan, ekonomi, gizarte, ingurune eta kultur alderdietan. Beren “Agenda 21” horretan burutua eta onartua dute hori guztia ia euskal udal denek.

Alde horretatik, EAJ-PNVren iritziz, lehentasuna du **Aalborg+10 Adierazpeneko konpromisoen garapenak**. “Etorkizunerako argibide hau” (2004) Europako udal gobernuek hartu zuten Herri eta Hiri Iraunkorren Europako IV Batzarrean, herritar guztiei bizimodu hobea eskainiko dieten hiri eta herri integratzaileak, oparoak, sortzaileak

eta iraunkorrak burutzeko helburu orokorrez.

- 1. GOBERNU ERAK:** demokrazia parte-hartzaileagoaren bidez erabakiak hartzeko prozedurak bultzatu.
- 2. IRAUNKORTASUNARI BEGIRA UDAL KUDEAKETA:** kudeaketa eraginkorreko egitarauak burutu (Udal Agenda 21). Marraztu, ezarri eta neurtu.
- 3. IZADIKO ONDASUNAK:** izadiko denon ondasunak zaintzeko eta gordetzeko erantzukizuna hartu eta izadiko ondasun horietarako bidea bermatu guztiei.
- 4. KONTSUMOA ETA BIZIERA ARDURATSUA:** baliabideen erabilera zuhurra eta eraginkorra erraztu, eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatu.
- 5. HIRIGINTZA MARRAZTU ETA PLANIFIKATU:** hirigintza marrazten eta planifikatzen zeregin garrantzitsua hartu eta guztien mesedeari begira bideratu ingurune, gizarte, ekonomi, osasun eta kultur gaiak.
- 6. MUGIKORTASUNA HOBETU ETA GARRAIOA GUTXITU:** garraioak, osasunak eta inguruneak elkarrekin duten zerikusia aitortu, eta mugikortasun iraunkorreko ereduak benetan sustatzera engaiatu.
- 7. HERRIKO EKINTZA OSASUNARENZAT:** herritarren osasuna eta ongizatea sustatu eta zaindu.
- 8. HERRIKO EKONOMI BIZIA ETA IRAUNKORRA:** ingurunea hondatu gabe enplegua ugalduko duen ekonomi bizia sortu eta ziurtatu.

9. **BERDINTASUNA ETA ZUZENTASUN SOZIALA:** erkidego integratzaileak eta solidarioak bermatu.

10. **TXOKOTIK ZABALERA:** Bake, zuzentasun, berdintasun, garapen iraunkor eta klimaren babesaren alde osotasuneko gure erantzukizun zabala geureganatu.

## 4.2. Gure erronkak eta proposamenak.

Aurreko hamar puntuetatik abiaturik, EAJ-PNVk hitz ematen du:

- **IZADIKO BALIABIDEEN ANTOLAKETA PLANAK** garatzeko eta ezartzeko, ingurunearekin zerikusia duten erabilera eta ustiapenak zein diren jakiteko beharragatik.
- Baliabideen antolaketa planean aurrez islatuta dauden **izadiko jarduerak arautzea eta antolatzea** sustatu, polizia berdea sortuz edo Miñoiek bere gain hartuz gai hauetarako: kontrolik gabeko zaborteziak, mendian zehar dabiltzan ibilgailuak, eskaladak, basararak, masustak, perretxikoak eta abar biltzea zaintzeko.
- **Parke Naturalak gehitu eta indartu**, diru-laguntza handiagoz hornituz, nekazari ingurumaria garatzeko, zerbitzuekiko enplegua, turismo eta ostalaritza sortzeko tresna bilaka daitezzen.
- **Udal Agenda 21en kudeaketa sustatu** udalerrri txikien artean edo Koadrilien bidez egintzak elkarrekin egitearen alde apustu egiten denean.
- **Ingurunearekin zerikusia duten udal arteko zerbitzuen** aldeko apustua: hondakinen kudeaketa, uraren ziklo osoa, ganadutegietatik sortzen diren hondakinak, albaitekoenak eta botikenak.
- **Erakundeen** (Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien, Udalen) **arteko lankidetzaren hitzarmenak izenpetzea** proposatu argindarra aurreratu beharrez jendea esnatzeko eta ekinbideak bideratzeko.
- **Energia berriztagarriak jarri nahi dituzten udalerrientzat laguntzak** sortu beren instalazioetarako eta kaleetarako behar duten argindarra lortzeko asmoz.
- **Garraioarekin** zerikusia duten neurriak abian jartzeko erabaki sendoa **bi ikuspuntutatik: udal barruko loturak** (zerbitzuekietara pertsonak garraiatzeko) **Lurraldeko lotura** (hiriburuetara garraiatzeko).

## 5. Nortasuna eta Kultura.

### 5.1. Kultura: gure nortasuna joera berriei egokitua.

Gure gizartea ezerk bereizten badu gure nortasuna ondo zehazten duten balioak izateak bereizten du. Aldi berean, ekimenerako gure gaitasunak bizitzaren esparru guztietan goren mailan lehiatzeko aukera ematen digu.

Bi gertakizun horien uztarketak gure ohiturak gordetzeko eta, aldi berean, argazkiaren, zinearen eta abarren bidez, kultur joera berrietan sartzeko aukera ematen digu. Sortzaileak eta berritzaileak gara, baina gure ohiturak ez ditugu horregatik baztertzen. Alderantziz, indartu egiten ditugu.

Kultur anitz honen elkarbizitzari eustea eta eragitea da EAJ-PNVren helburuetako bat. Lurralde desberdinetan eta era orekatsuan

### 5.2. Euskara: euskal gizartean elkarbizitzarako eta berdintasunerako balio sendoa.

Euskararen etorkizunaren erronka bere erabileran dago. Datozen urteetan Aldundiek eta Udalek gai honetan egingo dituzten ahaleginak Euskararen erabilera gehitzeko, erabilerarentzat esparru berriak irabazteko eta beste batzuetan sendotzeko egingo dituzte. Erronka horri erantzuteko:

- Euskararen aldeko adostasun soziala eta politikoa zabaldu eta sendotu.
- Euskararen erabileran herritarren ardura eta konpromisoa gehitu.
- Euskaraz ekoitzi eta kontsumorako ekoizpenak zabaldu.
- Gizarteko elkarte desberdinen ekimenak sustatu gizarte bizitzan euskararen erabilera bultzatzeko, erakunde publikoen lanaren aberasgarri eta osagarri moduan.

Zentzu horretan, EAJ-PNVko gizon-emakumeek, bai aldundietan eta bai udaletan erakundeen arteko elkarlanean oinarriturik garatuko dute hizkuntza politika, Eusko Jaurlaritzak burututako egitasmo eta irizpideak kontuan hartuz, halaber, gaur egungo Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN) tresnatzat hartuta.

banatutako kultur azpiegituren mapa burutzen saiatuko da, beraz. Horrela, lurralde bakoitzaren berezitasunei erantzungo diegu eta kultur adierazpen guztiek tokia duten esparruak sortuko ditugu.

Aisiaren eta turismoaren motore den kulturak modu berriak ere asmatu behar ditu, modu berrien eskea gero eta handiagoa denez. Ikus-entzunezko joeraren aldeko apustu erabakigarriak etorkizun itxaropentsua du gure kultur eskaintzan.

Aldundietatik eta Udaletatik garatuko diren jarduerako egitarauak eta egitasmoen laguntzek EBPNean ezarrita dauden hiru helburu estrategikoei erantzungo diete, beraz: euskara ondorengoei irakasteari, euskara gizarteko hainbat esparrutan erabiltzeari horretarako zerbitzuak sortuz, eta euskararen kalitateari eta kontsumoari. Hori guztia Eusko Jaurlaritzak Euskadirako burutzen dituen planen eta orientabideen barruan.

### Jarduerako 10 lerro

Egitarau honen konpromisoa betetzeko asmoz, Aldundietako eta Udaletako hizkuntza politikaren jardueran batez ere esparru hauetan bilatuko du egitasmoen garapena:

1. **Euskararen Biziberritze Plana egokitu eta onartu** udal guztietan, herri bakoitzeko berezitasunak kontuan izanaz.

2. **UDALen hedatzea eta sendotzea** bultzatu, hau da, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan EUDELeK euskara biziberritzeko sortutako udalen arteko sarea.
3. **Euskararen Erabilerako IV Normalizazio Plana Administrazio Publikoetan (2008-2012)** abian jarri.
4. **Euskara familietan belaunaldiz belaunaldi geroratzea** bermatuko duten berariazko egitarauak garatu, gurasoek, ikastetxeek, osasun zentroek eta hainbat erakunde publikok beren gogoz parte hartuko duten egitarauen bidez.
5. **Euskara pixkana-pixkana lan mundura sartzen** lagundu, beste erakunde publikoekin eta gizarte eta ekonomiako eragileekin lankidetzan Lanhitz **programa garatuz**.
6. **Haurrentzat eta gazteentzat antolatutako aisialdi eta kirol ekimenetan Euskararen erabilera gehitzeko** berariazko egitarauak, besteak beste, begiraleen hezkuntzarako ikasturteak eta ekinbideak antolatzen lagunduz.
7. Hizkuntza berdintasuna helburu izango duen irizpidea onartu eta, beraz, **Euskararen erabilera ziurtatu aldundien eta udalen hainbat plan orokor eta arloetakoetan, kontratu administratiboa barne**.
8. **Euskarazko ekoizpena eta banaketa zerbitzuak sortu kontsumorako**, bereziki aisia eta kultura esparruetan, eta informazioko eta komunikazioko teknologien erabilerari begiraturaz ekoizpen erakargarriak euskaraz sortuz.
9. **Euskarara inguratzeko eta irakasteko eta erabiltzeko bereziki etorkinei begira burututako egitarauak** garatu eta trinkotu, bakoitzaren bere hizkuntzarekiko begirune osoz eta gure gizartean txertatzearen, inolaz ere ez irensteko asmoz.
10. **Elebitasunaren eta eleaniztasunaren alde sentiberatzeko ekintza jarraitua** garatu, **Euskara ikasteko eta hitz egiteko beraz**. Eta hori guztia, elkarbizitza hobetzeko eta begirune eta berdintasun handiagoko gizartea eraikitzeko, Eusko Jaurlaritzak elkarbizitzarako **Ukan** izeneko birusaren bidez finkatu eta zabaldutako mezuaren haritik.